

Santiago Larrazábalen *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral* liburuaren erreseina

(Review of the book *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral*, by Santiago Larrazábal)

JIMENO ARANGUREN, Roldán

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiako campusa
31006 Iruña
roldan.jimeno@unavarra.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 107-109]

Sarrera eguna: 2005.09.13
Onarpen eguna: 2005.09.20



Santiago Larrazábal Basáñez *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral* (Oñati: HAEE, 2004) liburuaren erreseina egiten da artikulu honetan. Obra honek euskal zuzenbide publikoaren edukirik garrantzitsuenak jasotzen ditu, eta bere egituraren argitasunarengatik nabarmentzen da; hauxe da bere lorpen nagusietarikoa, Zuzenbide Publiko Historikora gerturatzeko diren ikasleentzako eskuliburu dela kontuan hartuz. Liburuak bibliografia gaurkotu eta oparoa ere eskaintzen du. Lan hau ezinbesteko erreferentzia bihurtu da.

Giltza hitzak: Santiago Larrazábal Basáñez. Euskal Zuzenbide Publikoa. Historia. Esku-liburu.

a continuación se reseña el libro de Santiago Larrazábal Basáñez *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral* (Oñati: IVAP, 2004). La obra recoge los contenidos más destacados del Derecho Público Histórico de Vasconia. Su estructura destaca por la claridad, siendo éste uno de sus mayores logros, atendiendo que busca ser un manual para los alumnos que se acercan al Derecho Público Histórico. El libro incluye asimismo una abundante y actualizada bibliografía. Este trabajo se ha convertido en una referencia imprescindible.

Palabras Clave: Santiago Larrazábal Basáñez. Derecho Público Vasco. Manual.

Ci-dessous on fait le compte-rendu du livre de Santiago Larrazábal Basáñez *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral* (Droit public des territoires foraux. Des origines à l'abolition forale) (Oñati: IVAP, 2004). L'œuvre recueille les contenus les plus importants du Droit Public Historique de Basconie. Sa structure ressort par sa clarté, ce livre étant l'une de ses meilleures réussites, compte tenu qu'il cherche à être un manuel pour les élèves qui se rapprochent du Droit Public Historique. Le livre comprend également une bibliographie abondante et actualisée. Ce travail est devenu une référence indispensable.

Mots Clés: Santiago Larrazábal Basáñez. Droit Public Basque. Manuel.

Santiago Larrazábal Basáñez, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak, euskal zuzenbidearen historiaren inguruko derrigorrezko erreferentzia den liburu bat argitaratu berri du: *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral*¹. Zuzenbide politikoko iuspositibista batek historian egin duen sarraldia paradoxikoa da, iushistorialariok bete ez dugun hutsunea betetzera etorri baita. Egileak berak liburuaren sarreran aipatzen du: “cuando tengo que explicar a mis alumnos las instituciones de derecho público de los Territorios Forales, me encuentro con que no existe en estos momentos ningún texto o manual al que ellos puedan acudir, que recoja de un modo sistemático y actualizado cuáles eran sus contenidos básicos”. Horrela da, eta horregatik obra honen argitalpena Zuzenbidearen historia irakasten dugunontzat poztekoa da, nahiz eta bere egileak gure diziplinatik at etorri.

Liburuak euskal zuzenbide publikoaren edukirik garrantzitsuenak jasotzen ditu. XIII-XIV. mendeetatik hasita, 1789ra ailegatzen da Iparraldeko kasuan, 1841era Nafarroakoan, eta 1876ra Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoetan. Larrazábal bera *Sorrerak* hitzarekin deitzen dionarekin hasten da, herrialde bakoitzean hauek direlarik: Bizkaiko *Foru Zaharra* (1452), Gipuzkoako *Recopilación de los Fueros, Privilegios, Leyes, Ordenanzas, Buenos usos y Costumbres de la Provincia de...* (1696), Arabako *Cuaderno de Leyes y Ordenanzas con que se gobierna la M.N. y M.L. Provincia de...* (1463), Nafarroako Foru Zaharra (XIII. mendea) eta Foru Orokorra (1330 eta 1418), *Les Coutumes de la ville de Bayonne* (1215), *Les coutumes générales du pays et vicomté de Soule* (1520) eta *Les Fors et Costumas deu Royaume de Navarre deça ports avec l'estil et aranzel deudit Royaume* (1611, 1645).

Irizpide hau abiapuntu bezala baliagarria izan daiteke, baina ikuspegi historiko batetik aurrekariak falta zaizkio. Aurrekari horiek egin izan balitu, liburuaren *Sorrerak* azpiztitulua aldatuko beharko zukeen, azken batean zuzenbide publikoaren *sorrerak* ez baitaude iturri eta garai horietan soilik, atzerago baizik, herrialde historiko bakoitzaren eraketa politiko-instituzionalean, alegia. Nafarroako erresumak eta Bizkaiko jaurerriak ez ote zuten ba zuzenbide publikorik haien foru orokorrak baino lehenago? Larrazábalek berak Lapurdiko eta Baionako zuzenbide publikoaren sorrera Baionako udal foruan (1215) kokatzen du; hiru mende geroago, honen ondorengoak *Les*

Coutumes de la ville et cité de Bayonne et juridiction d'icelle, approuvées, établies et confirmées par édit perpétuel et autorisées par arrêt de la Cour de Parlement de Bourdeaux (1514) izango dira. Gauza bera egin daiteke Euskal Herriko ordenamendu orokor guztiekin, hein handi batean ohituran oinarritutak, eta, askotan, udal foruetan, Baionako kasuan bezala edo Nafarroako Foru Orokorrean bezala, azken honek Tuterako forua izan zuela inspirazio iturri. Larrazábal Goi Erdi Aroko mendeetan ez murgiltzea ulergarria eta txalogarria da, iuspositibistek eta historialari garaikideek garai hori ikertzen dutenean, orokorrean, modu kaskarrean egiten baitute.

Liburuaren egitura bere argitasunarengatik nabarmentzen da. Hau bere lorpen nagusienetarikoa da, zuzenbide publiko historikora gerturatu diren ikasleentzako eskuliburua dela kontuan hartuz. Herrialde historiko bakoitzeko erakunde publikoen ezagutza sintetikoa izan nahi duen edonork aurkibide orokorrera joan eta hor aurkituko ditu modu azkar batean. Edukiak zehaztasunez eta azken argitalpenak bistan izanez idatziak izan dira, eta horregatik egileak sintesi eta gaurkotzerako egin duen esfortzua goraiatzekoa da. Lehenengo kapitulua Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako foru erakundeei eskaintzen die. Bizkaiko jaurgoan Batzar Nagusiak, Erregimentua, Diputazioa, Jaurgoaren kargu publikoak eta udalerrak ikertzen ditu. Gipuzkoako foru erakundeak jorratzen dituenean Batzar Nagusiak, Batzar Partikularrak, Diputazioa, Probintziako kargu publikoak eta udalerrak aztertzen ditu. Arabako Probintziaren foru erakundeei heltzen dienean, Batzar Nagusiekin hasi eta Batzar Partikularra, Diputatu Orokorra, Probintziako kargu publikoak eta udalerriekin bukatzen du. Kapitulu hau Nafarroako Erresumak ixten du. Bertan Administrazio zentrala, Gorteak, Diputazioa eta Erresumaren kargu publikoak ikusten ditu. Lurralde antolaketa hau –bigarren eta hirugarren kapituluaren izenburuan errepikatzen dena–, ikuspegi iushistoriko eta instituzionaletik bitxia da, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Nafarroako Erresumaren aurretik agertzen baitira. Orden bitxi eta ahistoriko hori egiteko egileak izan dituen arazoak ez dakizkigu.

Bigarren kapitulua paktismoa, kaparetasun unibertsala, oinarrizko eskubideak eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako sistema judizialaren inguruan egituratzen du. Lau gai hauek, euskal foraltasuna ezagutzeko funtsezkoak, modu trebe eta errazean jorratzen ditu, baita irakurleari orri gutxitan laburpen bikainean eskaini ere.

1. LARRAZÁBAL BASÁÑEZ, Santiago. *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral*, Oñati: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea; 477 or. (ISBN 84-777-276-2).

Foraltasunaren pilare horiei hirugarren kapitulu garrantzitsuak diren bestelako batzuk jarraitzen diete: berezko sistema militarra, berezko agasuna, merkataritza askatasuna, foru pasea eta sobrekarta eskubidea.

Gaztelaniaz idatzitako literaturari so egiten badiogu, original eta ezezagunena den laugarren kapitulu Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beheri eskaintzen die. Manex Goyhenetxek eta Maïté Lafourcadek egindako sintesi lanak alde batera utzita, Larrazábalen kapitulu hau Iparraldeko herrialdeen aro modernoko erakunde inguruan egindako hurbilpen panoramiko bakarra da. Hegoaldeko azterketan bezala, Pirinioak haratego lurraldeen deskripzioa modu berezian egiten du, Lapurditik hasita, Zuberoatik jarraituz eta Nafarroa Beherearekin bukatuz. Lehenago adierazi dugun bezala, oraingo ordena ere ikuspegi ius-historiko batetik ez litzateke zuzena izango, Nafarroa Beherea 1515ean Nafarroako Erresuma mantentzeko arrazoi eta zergatia izan baitzen, eta baita 1589. urtetik aurrera ere, Enrike III.a Frantziako errege izendatu zutenean, ordudanik Frantziako erregeek Nafarroako titulua eraman baitzuten, 1789ko iraultza arte.

Lapurdiko foralitatearen azalpena bailioarekin eta bere erakundeekin (bailea, biltzarra, Sindiko Orokorra, udalerriak) hasten da, eta sistema judiziala, defentsa-sistema eta fiskalitatearekin jarraitu. Baionak duen izaera juridiko bereziarekin bukatzen du. Zuberoako foralitatearen Errege ofizialak, Herriaren ordezkate erakundeak (Estatu Orokorrak eta Sindiko Orokorra), udalerriak, sistema judiziala eta fiskalitatea aztertzen ditu. Nafarroa Beherari dagokionez, Larrazábalek Erret ofizialak, Herriaren ordezkate erakundeak (herrialde edo ibarren Gorte Orokorrak eta Nafarroa Behereko Estatu Orokorrak), udalerriak, sistema judiziala, defentsa sistema eta fiskalitatea ikusten ditu. Azken zatia Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko foralitatearen bukaerari eskaintzen dio.

Liburuak bibliografia oparoa duen azken atal bat dauka. Honek erreseinatzea merezi du. Egilea, liburuan zehar oin-aipuetan jorratutako arlo bakoitzaren inguruko bibliografia esanguratsua plazaratzen joan da. Erreferentzia bibliografiko hauek modu luzean jartzen ditu, eta, hori dela eta, aipu horiek orriak eta orriak betetzen dituzte, estetikoki gaitzesgarria dena eta, batez ere, praktikotasun gutxikoa, irakurleak hainbeste erudizioarekin nekatuta bukatzen baitu, askotan irizpide selektibo batekin ordenaturik ez baitago. Egileak askotan obra garrantzitsuak kaskarrekin batera jartzen ditu, eta horrek nahaste-borrastearen itxura hartzen du. Zentzu horretan, etorkizuneari argitalpen berriak egiten badira –desiatzen duguna, obrak merezi baitu–, beste aipu-sistema

bat erabiltzea gomendatzen dugu, anglosaxoia adibidez, irakurleak azken erlazio bibliografikora jo baitezake. Bestalde, komenigarria litzateke aipuetan agertzen diren nota amaitezinak irizpide batekin ordenatzea, alea lastotik bereizteko. Kritika honek, ordea, ezin du ezkutatu liburuak duen bertuterik handienetarikoa bat. Larrazábalek, Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Institutuaren zuzendariak, bere erakundeko liburutegiari etekin ezinhobea atera dio, euskal zuzenbide historikoa ikertzeko liburutegirik hoberena edo hoberenetarikoa baita. Hori dela eta, obra honetan euskal erakunde publikoen inguruan dauden lan garrantzitsuenak aurkitzen dira, eta horregatik liburu ezinbesteko erreferentzia da, eta nola ez, abiapuntu praktikoa edozein erakunde ikertzeko orduan. Arrazoi horregatik, obra hauekin askotan gertatzen den bezala, askok aprobetxatuko dute, nahiz eta ez aipatu.

Liburuaren orrietan agertzen den erreferentzia bibliografikoaren uholdea ikusita, badirudi Larrazábali ez diola deusek ere ihes egin, baina, uzta oparo horretan murgiltzen bagara, falta diren sorta batzuk agertzen zaizkigu, batez ere Nafarroa eta Iparraldeko kasuetan. Ez dut egileari egotzi diodana egingo, egile eta izenburuen zerrenda luze bat egiten, baina, adibide moduan, letra larrian egile batzuen gabezia nabarmentzea komenigarria da, besteak beste Nafarroarako Mercedes Galán Lorda, Iparralderako Charles Higounet eta Lapurdirako Pierre Hourmat, adibide esanguratsu batzuk aipatzearen.

Kritika hauek ezin dute liburu hau ilundu, bere argitalpenetik ezinbesteko erreferentzia bihurtu baita eta, euskal zuzenbide publikoaren historiaren lehenengoa eta bakarra den heinetik, ongi etorria eta ospatua.